

## OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUA ASANBLADA

**Asanblada zk.: 7**

Data: 2026-02-19

Ordua: 18:00-19:00

Tokia: Udaletxeko bilera gela

### **Gai ordena**

- Aurreko aktaren onarpena
- 2026 urterako plangintza aurkeztea
- Galdera eta eskaerak

### **1. Aurreko aktaren onarpena**

Ahobatez onartu da

### **2. 2026 urterako plangintza aurkeztea**

Aurkeztu dira Kontseilukideek lehentasunezko lan ildo gisa 2026 urterako identifikatutako erronkak:

- Oñatiko Emakumion Etxia egitasmoaren jarraipena egitea
- Zaintza estrategian ematen diren urratsen jarraipena egitea
- LOPIVI legearen garapenean ematen diren urratsen jarraipena egitea
- Indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio egitasmoa garatzea, zurrumurruen kontrako kanpainaren bidez.

2025 urtean adostu zen oñatiko Emakumion etxia egitasmoaren gaineko jarraipena egingo duela Kontseiluak. Urtean zehar eta egitasmoaren urratsetan ikusiko da zein izan daitekeen kontseiluaren papera, baina aurreikusten da egitasmoak oinarritzko printzipio eta egitekoak betetzen dituela ziurtatzeaz arduratuko dela kontseilua. Zurrumurruen gaineko egitasmoari dagokionez, enpresa bat kontratatzea aurreikusten da, lan hori egikaritzen laguntzeko. Oinarritzko dokumentu bat eratu da, eta horren gainean hasiko da lanketa. Lan horretan esperientzia duten enpresak bilatuko dira eta eurekin landuko da egitasmoa. Hiru aurrekontu eskatuko dira honetarako. Kontseiluaren aurrekontu partidaren bidez finantzatuko da bide honetan egingo den lanketa. Kontseiluak 20000€ko aurrekontua du 2026 urterako.

### **Aprobetxatu da udalak 2026 urterako dituen lan ildoen errepasoa ere egiteko.**

2026 urtea bereziki markatuko du Oñatiko emakumion etxiaren irekierak. Lan horietan ari da une honetan udala murgilduta eta otsailetik ekainera arteko tartean lehentasunezko prozesua izango da.

Horrez gain, honakoak izango dira urteko egitasmo nagusiak:

- Jarraipena ematea martxan dauden egitasmoei edo aurreko urteetatik datozenei (Jabetze eskola, egun esanguratsuen inguruko lanketak, jaietako eraso sexisten prebentzioa, aholkularitza juridikoa, ea)
- Hezkidetza egitasmoaren ebaluazioa (barne mailan)
- Selma Huxlay barkham ikerketa bekaren hedapena
- LGBTIQ+ diagnostikoaren hedapena eta lan ildoaren irekiera.

### 3. Galdera eta eskaerak

Otsailetik aurrerako bilera egunak noiz izango diren adostu da.

Galdetegia bidali zaie kontseilukideei, eta jasotako erantzunetan oinarrituta ezarri dira hurrengo bilerei dagozkien datak. Astearteak eta asteazkenak dira gehienek ahal duten egunak. Denon parte hartzea bermatze aldera, eguna txandatzen joatea adostu da. Honakoak dira ezarritako datak:

- Martxoak 24, 18:00
- Apirilak 22, 18:15
- Maiatzak 18, 18:00
- Ekainak 17, 18:15

Bestetik, aipatu da Kontseiluan parte hartzen ari ez diren kontseilukideekin harremanetan jartzea, eta kontseiluan jarraituko ez duten pertsonen izendatzea deusezteia Alkate Dekretu bidez, kontseilua arautzen duen ordenantzan jasotakoa jarraituz.

Era berean, aipatu da kontseilura herriko emakumeak gerturatzeko saiakera egin beharko litzatekeela, baina Emakumion Etxiaren irekiera bertan egonik, orain kanpaina bat egitea nahasgarria izan daitekeela uste da. Alde batetik, Etxian landu beharko litzateke nola egin kontseilurako urratsa, eta bestetik, aurrera begira planteatzen daiteke kanpaina propio bat egitea ere.

Ez da hurrengo asanbladaren datarik zehaztu.

Ez dagoenez bestelako galdera edo eskaerarik, bilera amaitutzat ematen da 19:00etan.

#### TRADUCCIÓN

Podeis traducir el contenido de este documento en:

<https://www.euskadi.eus/itzuli/>

O solicitar una cita telefónica, para un resumen oral del contenido del mismo. [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus)



| Sinaduren laburpena / Resumen de firmas |                                          |
|-----------------------------------------|------------------------------------------|
| Titulua / Título:                       | kontseilu asanbladako akta               |
| CSV/EKS:                                | SINAd15b21a8-3b78-443f-a4e4-83b8f4669316 |